

**DANTZA.** Oskorri taldeak urrik kontzertua eskainiko du Angeluko plazan, egun osoko jaiari amaiera emateko

# Dantzatik euskal kulturara

450 bat angeluar bilduko ditu lehen aldikotz antolatuko den Kabalkadak ekainaren 2an

Nora Arbelbide | ANGELU

Orotara 450 bat angeluarrek parte hartuko dute ekainaren 2an antolatua den Kabalkadan. Makilaria, zaldun, zapur, basa andere, zirtzil eta dantzariak, hots, kabalkadak osatzen dituzten pertsonaiak dantzan ariko dira Angelun gandi. Herria batuko duen egun bat izateko itxa-

ropena dute Kabalkadak ekitaldia antolatu duten bederatzik elkarrekin.

Angeluko Ibaialde, Haroytarrak, Angeluarrak, Angeluzain, Angeluko ikasleak, Angeluko ikastola, Ipar Izar eta Ikas Bi elkarteak bildu dira ekimen horrentzat. Ez dute egun «fokloriko huts bat antolatu nahi izan», André Perret Angeluzai-

neko lehendakariak zehaztu zuenez, baizik eta «zinezko ekitaldi kultural bat». Izan ere, euskal kultura bultzatu nahi dute, eta baita jendea horretaz informatu ere.

Ekimen bateratu baten inguruan elkarteak elkartzea nahi izan dute, «herri animazio» bat sustatzeko, hiria mugiarazteko gisakoa. Era batean, hori jada-

nik lortu dute. Izan ere, parte-hartzaileen 250 bat antolatzaileetatik hurbil badira, besteek ez zuten hasieran deus ikustekorik.

80 musikaririk lagunduak, denek batera, ekainaren 2an goizeko 10:00etan desfilea hasiko dute Choisy kirolzelaitik. Kabalkada tradizionala bezala Tobera bat ere emanen dute ondotik. Gaur egungo gizartea salatuko du. 12:00etan Herriko etxean ikusten ahalko da. Bazkaria eta arratsaldeko ekitaldiak ere bertan iraganen dira. Oskorrik urrik eskainiko du kontzertua 19:30ean.

Horrez gain, kabalkadei buruzko erakusketa bat xutik ezarria dute Angeluko liburutegian. Hilabete batez ikusten ahalko da. Garaztarrak Donibane Garaziko dantza taldeak sortu zuen erakusketak kabalkadaren historia berri hartzeko du.

## Kabalkada, euskal nortasunaren onarpenaren bidean

Mutxikoak hilabetero dantza-tzeko aukera bada orain bost bat urte eskaintzen dutela Angelun. Horretatik Kabalkadak antolatzea bide luzea iragan dute bertako elkarteek. Duela bost bat urte, Angelun ikastola bat aldarrikatzeko hasi ziren euskal dantzak. Manifestazio soil bat egiteko ordez, besta giro baten piztea egokiagoa atzematen zuten.

Ez zen istilugabekoa izan hasieran. Angeluko Herriko Etxe-ari jendarmeak bidaltzea gertatu zitzaion. Geroztik bidea egin du euskal kulturak herrian. Kabalkaden proiektuarekin Herriko Etxea erabat alde agertu da. «Ate guziak ireki» ditu Michel Doihanbehare Ibaialde eta Angeluzainek kideak azaldu zuten. Oihal etxeak, komunikazioa eta beste gauza franko bere esku hartu ditu.

«Aurreko hauteskundeetan hiru abertzale kontseiluan sartzearekin gauzak zabaldu zirela ohartu eta hori erabili dugu kabalkadak antolatzeko», gehitu zuen. Udal aholkulari batzorde bat ere sortu berria du herriak. Euskal eta gaskoin kulturak nola lagundu daitezkeen ikusiko du honek.

Ukanen du zer aholkatu nahi badu. Izan ere, ezkontzak eta beste horrelako akta zibilak euskaraz egiteko aukera ukateko kanpaina Angelun abiatu bazen, Herriak berak ez du oraino agirik izenpetu. Seinaleak ere oraino soilik frantsesetik daude.

## Zuberoako dantzen urratsak ikasteko metodoa aztertu du Ikerfolkek

Iñaki Gurrutxaga | DONOSTIA

Jexux Larrea eta Fernando Aristizabal dira Ikerfolkek *Jira Galdua* bildumaren barnean argitaratu duen *Aitzineko püntiak* alearen egileak. Larreak adierazi zuenez, «gaur egun maskaradetan eta pastoraletan egiten diren dantzak ikasi eta batez ere irakasteko metodoa da lan berri hau». Argitalpen honen mamia ulerkeragoa egiteko, dantza suletinoak hizkuntzarekin alderatu dituzte egileek, hau da, «dantza mota hauek gramatika bihurtu ditugu eta hori hala izateko erabilitako prozesua hiru puntutan banatu dugu: urratsak eta püntiak, aldairak eta soinua», zehaztu du.

## Gramatika eta metodoa

Püntiak zuberotarrek urratsa adierazteko erabiltzen duten hitza da. Puntu honetako lanik garrantzitsuena pausoen eboluzioa ikasi, zehaztu eta izenak aurkitzea izan da. Bigarrenik, aldairak aztertu zituzten. Aldairetan urrats horiek duten azentu koreografikoa jasotzen da eta asmatutako hizkuntza horretan esaldiak izango liriteke. Prozesuarekin amaitzeko soinuen inguruko lanari ekin zioten egileek: «tradiziozko melodiak eta koreografiak ikasi eta konposaketa librea egiten diren urratsak landu ditugu hemen, eta aldairak bata bestearekin lotuz testu bat lortu dugu alegiazko hizkuntza horretan txertatzeko».

Behin gramatika osatuta metodoa sortu zuten eta 57 urratsez osaturiko zerrenda bat abian jarri. Ondoren, aldairak egiteko ariketak hiru taldetan banatu zituzten urratsen arabera. Azkenik, dantza tradizionalaren koreografia finkatuak eta konposizio librekoak aztertu dituzte puntu puntu. Aipatu teoria hauek guztiak praktikan jartzeko Zuberoako bost dantza tradizionalen musikak biltzen dituen CDa banatuko du aldizkariarekin.



GAIZKA IROZ  
Angeluko Kabalkada aurkeztu zuten atzo.

## JEAN-MARC LANDARETXE | IBAIALDEKO KIDEA

«Euskal dantzetan dagoen eskaera baliatuz jendea euskal kulturara hurbiltzeko ari gara»

Nora Arbelbide | BAIONA

Elkarrekin arteko elkarlan bati esker Kabalkada antolatu eta Tobera bat ere idatzi dute. Ekitaldi kulturala baino gehiago jendea euskal kulturara zabaltzea nahi dute.

### ■ Laurehun bat angeluar biltzeak zerbait erran nahi du, ez?

Bada orain bost urte hilabetero mutxikoak ematen ditugula. Aldi oroz 200 bat jende hurbiltzen da gaur egun. Kantuaren inguruan ere galdera handia bada. Hori baliatu nahi dugu jendeak aitzin urrats bat egiteko, euskal kulturara oraino gehiago hurbiltzeko.

### ■ Justuki, eskainiko duzuen Toberan hizkuntzari

### buruz jendea hunkitzen saiatuko zarete, ez?

Baiona-Angelu-Miarritze alde honetan euskara galtzen ari dela da Toberaren mezua. Horretarako fikziozko istorio bat asmatu dugu. Bi gazte auto istripu baten ondoren hil eta Paradisura heltzen dira. Hor auzitegi batekin topo egiten dute. XVII, XVIII eta XIX. mendeko arbasoak dituzte epaileak. Hauek euskara eta gaskoina dakite bakarrik. Ezin dute elkarrekin komunikatu.

### ■ Angeluko historia aipatzen duzue...

Manex Goienetxe historialariak lagundu gaitu horretarako. Toberan, besteak beste aipatzen dugu nola lehen Angeluko biztanleak gehienbat idi-

zainak ziren. Idiekin Baionara joaten ziren burgesien barrukien husterak, haien kaka biltzera.

### ■ Gaskoinari tarte bat eman diozue, zendako?

Tobera hiru hizkuntzetan emanen dute. Lehen, familiak gaskoina eta euskara hitz egiten zituzten. Euskarak eta gaskoinak arazo berak dituzte. Hobe beraz elkarrekin hartzea elkarren aurka baino.

### ■ Tobera eta oro har kabalkadik ez da behin ere egin Angelun gaur egun arte, ez da bertako kultura, ez?

Bai. Baina hori berdina zaigu. Nahasketaren alde gaude. Ez gara batere puristak. Helburua ez da tradizio baten segitzea.